


Merkataritzako salmentak % 5,2 jaitsi dira 2020ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Sektoreko enplegua % 0,3 murriztu da 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

Handizkako eta Txikizkako merkataritza eta Ibilgailuen salmenta eta konponketa barne hartzen dituen Merkataritza-sektoreak % 5,2ko jaitsiera izan du salmentetan, termino errealetan, 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaroen ondorioak kenduta, Merkataritza % 5,4 murriztu da prezio konstanteetan.

Merkataritzako koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Merkataritza. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenta errealean urte arteko bilakaera, egutegiaren ondorioak kendu ondoren, negatiboa izan da hiru adarrentzat, eta nabarmentzekoa da Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketan behatutako % 16,7ko atzerakada. Handizkako merkataritzaren salmentak % 4,6 jaitsi dira, eta Txikizkako merkataritzarenak % 3,3. Lurraldeen arabera, Araban % 6,0 murriztu dira salmentak, Bizkaian % 5,3 eta Gipuzkoan % 4,7, hori dena 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta eta prezioen eta egutegiaren ondorioa kenduta.

Euskal AEko Merkataritzako langileen indizea % 0,3 jaitsi da 2019ko lehen hiruhilekoaren eta 2020ko lehen hiruhilekoaren artean, eta horrek esan nahi du % 0,1eko

beherakada izan dela, urtaroen ondorioak kenduta, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza.
Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. I/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
ÍNDICE GENERAL	-5,2	-5,4	-5,2
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-16,7	-16,0	-16,7
Handizkako merkataritza	-4,6	-4,4	-4,6
Txikizkako merkataritza	-3,3	-3,9	-3,3
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-6,0	-6,4	-6,0
Bizkaia	-5,3	-5,0	-5,3
Gipuzkoa	-4,7	-5,7	-4,7
ENPLEGUA	-0,3	-0,1	-0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

COVID-19AREN KRISIAK ZKI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, martxoaren bigarren hamabostaldian zerbitzu-sektoreko enpresa asko partzialki edo erabat geldiarazi dira. Beraz, salbuespenezko egoera horrek eragina izan du lehen hiruhileko honetako Zerbitzuen koiunturako indizeari dagokion aldiaren seigarren batean.

Egoera horrek ekarri du Zerbitzuen koiunturako indizea egiteko behar den informazioa lortzeko beharrezko ahalegina handitu izana, hala inkestatutako enpresen aldetik nola informazioa biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen diren langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, 2020ko lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **83,30eko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa gehienbat apirilean jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62